

KONTZERTU EKONOMIKOA. PPKk gizarteari «bizkarra» eman diola uste du Josu Jon Imaz Jaurlaritzako bozeramaileak. Negoziazioek huts egin dute, adierazi duenez Jose Maria Aznarren gobernuak borondaterik ez duelako akordioa egiteko

Erantzun «politiko, juridiko, ekonomiko eta soziala» iragarri du Jaurlaritzak

Kontzertuaren luzapena dela-eta zein neurri hartuko dituen gaur jakinaraziko du Juan Jose Ibarretxek

Felix Iriarte | GASTEIZ

Kontzertu Ekonomikoaren negoziazioak ez du emaitzarik izan, eta Madrilgo gobernuak agindu duen luzapena indarrean da. Egoera hori ikusirik, Eusko Jaurlaritzak neurriak hartu ditu, eta gaur jakinaraziko ditu Juan Jose Ibarretxe Eusko Jaurlaritzako lehendakariak.

Neurri «politiko, juridiko, ekonomiko eta sozialak» iragarri zituen Josu Jon Imaz Jaurlaritzako bozeramaileak herenegun, Cristobal Montorok Idoia Zenarruzabeitia Jaurlaritzako Ogasun sailburuak negoziatitzeko egin zion eskaera arbuia-tu eta gero. Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluak ezohiko kontseilua egin zuen astelehen arratsaldean, egoera aztertze-ko eta hartuko dituzten neurriak zehazteko.

Egoera «oso larria» dela esan zuten Imazek eta Zenarruzabeitia. Jaurlaritzako ordezkarien arabera, negoziazioari heltzeko urratsa Jaurlaritzako ordezkari-ekin zuten, Europako gaia negoziatitzetik kanpo uzteko eskaerarekin. Hala ere, Cristobal Montorok erantzun zuen Jaurlaritzaren erabakia «onartezi-na» zela.

Ika-mika horretan Arabako Foru Aldundiak ere lagundu zuen, beste batzuetan bezala Montororekin bat egin baitzuen Ramon Rabanera ahaldu nagusiak. Esan zuen proposamen hori egiteko Arabako Foru Aldundia «baztertu» egin zutela. Roman Sudupe Gipuzkoako ahaldu nagusiak, ordea, jakinarazi zuen Zenarruzabeitia Montorori helarazi zion proposamena EAEko ordezkari-tza «guztiaren» proposamena zela, ez Jaurlaritzarena bakarrik.

«Madrilek ez du borondaterik»

Afera honek guztiak agerian utzi du, Imazek adierazi duenez, Jose Maria Aznarren gobernuak ez duela «inolako borondaterik» akordioa bideratzeko. «Madrilgo gobernuaren borondatea argi eta garbi azaldu da: ez du hitzarmenik nahi,



THOR CASTRO / EFE

Espainiako Gobernuaren erantzunaren berri izan ostean, bilera egin zuten Eusko Jaurlaritzako kideek herenegun arratsaldean Gasteizen, Kontzertuaren luzapenari zer erantzun eman erabakitzeko.

IKA-MIKA

Jaurlaritzaren eskaera gaitzetsi du Montorok

Europar parte-hartze zuzena lortzeak akordioa zapuztu zuela nabarmendu zuten Madrilgo gobernuak eta Arabako Foru Aldundiak —biak PPKo gobernuak dute—. Ikuspegi horri aurre egiteko, Idoia Zenarruzabeitia Ogasun sailburuak proposatu zuen Europako erakundeetan ordezkari-tza izateko Jaurlaritzaren aldarrikapena negoziatitzetik at uzteko prest zegoela. Gai hori sei hilabeteko epean hitzartzeko borondatea azaltzeko eskatu zion, halaber, Madrili.

eta Kontzertu Ekonomikoak irtenbidea hitzartua izatea eragotzi nahi du», esan zuen Jaurlaritzako eledunak. Kontzertu Ekonomikoa itun bat dela nabarmendu zuen Imazek. Izan ere hori hautsi egin da Madrilgo gobernuak luzapena bere kabuz onartuta.

Jaurlaritzak euskal gizarteak eskatzen zituen proposamenak egin zituela adierazi du Jaurlari-

tzako bozeramaileak. Eta horiek gaitzestea gizarteari «bizkarra» ematea dela pentsatzen du: «PPk eta Aznarren gobernuak euskal gizarteari bizkarra eman diote, akordioa eragotzi baitute. Halaber, bizkarra eman diete eragile sozialei, ez dituztelako onartu defenditzen zituzten proposamenak».

Zenarruzabeitia ere pentsatzen du egoera «oso larria»

Jaurlaritzak Madrilgo gobernuaren borondate politikoa frogatu nahi zuen. Izan ere, Zenarruzabeitia jakinarazi du Europako kontuez gain beste batzuk daudela hitzartzeke, eta horiei lehenetsia ematearen alde azaldu zen.

Proposamenak eragile sozialen oniritzia izan zuen, baina Madrilgo gobernuarena ez. Cristobal Montoro Ogasun ministroak erantzun zion proposamen hori negoziazio mahaian izan dena baino «txarragoa» zela. «Onartezina da proposamena», adierazi zuen.

Europa eta Kontzertu Ekonomikoa ez direla «nahastu» behar deklaratu zuen ondoren Espainiako irratik batean. Esan zuen Kontzertu Ekonomikoa Europarekin ez duela loturarik.

dela. Euskal ordezkari-tzaren buruak adierazi du agerian geratu dela Madrilgo gobernuak ez duela borondaterik akordioa egiteko. «Argi geratu da Europa ez zela oztopoa akordiorako. Hori aitzakia gisa erabili dute hitzarmena eragozteko», adierazi du. Kupoa, Ertzaintzaren finantzabidea eta enpresa ez-egoiliarren zergak eztabaidan izan dira negoziatze-ko azken

LUZAPENA

Indarrean atzodanik

Kontzertu Ekonomikoaren luzapena indarrean dago atzodanik. Espainiako Buletin Ofizialak (BOE) herenegun jakinarazi zuen luzapenaren legea indarrean izango zela, Jaurlaritzak eta Madrilgo gobernuak ez dutelako berri-tu Kontzertua. Hogei urteko indarraldia izan du Kontzertu Ekonomikoa, eta PPKo gobernuak hartu duen erabakiarekin beste bat izan-gu du.

JOSU JON IMAZ

Jaurlaritzako bozeramaile

«PPk eta Jose Maria Aznarren gobernuak bizkarra eman diote euskal gizarteari, akordioa eragotzi baitute»

«Madrilgo gobernuak Kontzertu Ekonomikoaren irtenbidea hitzartua eragotzi nahi du. Ez du akordiorako asmorik»

egunotan. Madrilak jakinarazi zuen gai horiek ez zirela oztopo izango akordioa egiteko, eta eragozpen bakarra Europar parte-hartze zuzena izateko Jaurlaritzaren nahia zela jakina-razi zuen.

IUk bat egin du Jaurlaritzak esandakoekin. Gaspar Llamazares koordinatzaile nagusiak adierazi du PPK ez duela onartu oraindik maiatzaren 13ko «porrota», eta Kontzertu Ekonomikoaren negoziatze-ko akordioa baztertu eta «konfrontazioa» bi-latu duela salatu du. Egoera Kongresuko Batzorde Iraunkor-rean aztertu nahi du IUk.

Begoña Errazti EAKo lehen-dakariaren ustez, Espainiako Gobernuak Kontzertua luzatu izanak «egungo esparru juridi-ko» ez duela onartzen adieraz-ten du.